

NAFAR HIZKUNTZA

euskera@diariodenavarra.es

'Zorioneko', 2022 urteko euskal hitza

'Irulegiko eskua' dela eta, berba horrek hedabideetan eta sarean izan duen erabileran oinarrituta, 2022ko hitza hautatu dute Euskaltzaindiak eta UZEIk

DN Iruñea

Arangurengo Irulegi mendiko aztarnategian aurkitutako brontzezko eskuan, "orain arte baskoieraz ezagutzen den testu zahar eta zabalena" dago idatzita, Aranzadi Zientzia Elkarteak aurtan ezagutzera eman duenez.

Aurkikuntza arkeologiko horren begi-bistako garrantzia dela eta, albisteak oihartzun handia izan du, eta nazioarteko komunikabide handi batzuek ere horren berri eman zuten azaroan. Ezbairik gabe, zientzialariek *Irulegiko eskua*ren idazkuna osatuko luke ten hitzetako bat *sorioneku* gisa transkribatu izanak zeresan handia eman zuen ondorengo egun eta asteetan.

Orduz gerotzik, *zorioneko* hitza ardatz duten mezu eta lelo

ugari hedatu dira euskararen inguruan, eta horren adibide dira Euskaraldiaren eta Euskararen Nazioarteko Egunaren harira zenbait erabiltzailek eta erakundek esandakoak.

Itxura guztien arabera, oraindik ere emango du zeresana Irulegiko eskua, Andres Urrutia euskaltzainburuak gogoratu zuen bezala, diziplina arteko ikerketa egin beharko baita; beraz, arkeologoen, hizkuntzalarien eta gainerako zientzialariek esaten dutenaren zain geratu beharko dugu oraingoz.

UZEI asmorik gabeko erakundeak egunero egiten du lexikoaren jarraipena, nagusiki komunikabideak arakatuz, besteak beste hizkuntza naturalaren prozesamenduan oinarritutako tresnak garatzeko eta mantentzeko. Jarraipen horretan oinarrituta hautatzen dute Euskaltzaindiak eta UZEIk urteko hitza.

Aurten, inflazioak, Ukrainako gerrak eta hizpide izan diren beste gai nagusi batzuei itzal egiteko adinako hedadura izan du Irulegiko eskua. Horren adibide da, esaterako, gertakari horren inguruko oihartzunak Euskaltzaindiaren



Irulegiko eskuan irakur daite 'sorioneku' hitza.

NAFARROAKO GOBERNUA

Hiztegian utzi duen nolabaiteko arrastoa, zorioneko formak azaroko aste bakarrean izan baitzuen hiztegi digital horretako sarrera bakoitzak aurten batez beste izandako kontsulta-kopuru bera.

Mitxelenaren hitzak gogora ekarriz, euskararen miraririk

handiena hainbeste mendetan zehar irautea dela azpimarratu zuen Andres Urrutia aurkikuntzaren harira: "Aurkikuntza, bere benetakotasuna eta euskararekin bat datorrela baieztatzen bada, euskara lurralde honetan presentzia oso zaharra duen

hizkuntza dela zabaltzeko eta horren kontziente izateko beste mugarri bat izango da, lurralde honen hizkuntza bat delako eta, beraz, gaur egun sozialki proiektatu behar dugun hizkuntza bat delako, dagokion estatusa izan dezan".

Nafarroan euskal zinemagintza sustatzeko 71.298 euro 2023an

• Espainiako Zinemagintzaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuak (ICAA) eta Nafarroako Gobernuak hitzarmena sinatu dute

DN Iruñea

Espainiako Zinemagintzaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuak (ICAA) eta Nafarroako Gobernuaren Kultura eta Kirola sailak hitzarmen bat sinatu dute euskarazko zine eta ikus-entzunezko industria sustatzeko laguntzak abiatzeko. Horretarako, 71.298 euro erabiliko dituzte Nafarroan. Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako akordioa, bere alde tik, 760.395,49 eurokoa da.

Helburua, euskarazko ikus-entzunezkoaren produkzioa, distribuzioa, emankizunak eta promozioa sustatzea da, baita promozio jarduerak antolatzea ere,

Imanol Rayoren *Hil Kanpaiak* pelikularen filmaketa Beran. JOSÉ ANTONIO GOÑI

Espainiako kultur aniztasuna eta lurralde bakoitzaren hizkuntza propioen aukera-berdintasunak bultzatzeko asmoz.

Estatuko 2023rako aurrekontu orokorrak 10 milioi euro esleitzen dituzte Katalunia, Galizia,

Balear irlak, Nafarroa, Euskal Autonomi Erkidegoa eta Valentziaren hizkuntza koofizialetako zinemagintzak sustatzeko. Aurreko urtearekin konparatuz, milioi erdi euro gehiago suposatzen du kopuru horrek.

Elhuyarrek itzultzaile juridiko-administratiboa txertatu du Elia-n

• Beste bi berrikuntza ere egin ditu Elhuyarren Elia itzultzaile automatikoak: itzulpenak editatzeko aukera eta itzulpen gidatua

DN Iruñea

Elhuyarrek testu juridiko-administratiboak itzultzeko berarriazko sistema txertatu du Elia itzultzaile automatikoan. Hartara, erabiltzaileak, testu-motaren arabera, sistema orokorra, orotariko testuentzat, edo sistema juridiko-administratiboa hauta dezake. Horrez gain, dokumentu osoak itzultzeko eskatzean, orain esaldiz esaldi edita daiteke sistemak proposatutako itzulpena, jatorrizkoarekin konparatuz, emaitza deskargatu aurretik. Hala, oso erraz zuzendu daitezke sistemaren hutsegiteak,

zeinetako batzuk sistemak berak detektatzen baititu: zenbaki desberdinak, helbide elektroniko eta url okerrak... Eta, azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntza bati esker, itzulpen gidatua eskaintzen du orain Eliak. Hala, proposatzen digun itzulpenaren gainean aldaketak egin daitezke sistemak lagunduta: hitz batean klik egin, eta handik aurrerako zatirako beste proposamen batzuk zerrrendatzen dizkigu.

Elhuyarren itzultzaile automatikoa elia.eus webgunean erabil daiteke, eta doakoa da. Erregistratuz gero, aukera berri horietaz gain, hiztegi pertsonalizatuak erabiltzeko aukera eskaintzen du, hitz jakin batzuk guk nahi bezala itzul ditzan. Eliak sei hizkuntzaren arteko itzulpenak egiten ditu segundo gutxi batzuetan.